

Amaitu dira Zaparrayeko udalekuak

30 gazte izan dira
aurten
kanpamenduetan

Txiribitu
taldearekin batera
egin dituzte
ekintzak

ALEX SILVA

AZPEITIA. **DV.** Zaparraye aisialdi taldeak antolaturiko udalekuak amaitu dira. Ibarrako Txiribitu taldearekin batera antolatu zuten aurtengo irteera. 30 gazte animatu dira bertara.

Beraiekin batera 12 begirale, bai Zaparraye taldekoak bai Txiribitu taldekoak, eta 3 sukaldari egon dira.

Ekitaldiz eta jaiez beteriko egunak igaro dituzte Nafarroako herrian. Inguruarekin erlazio zuzenean izan dira ekintza desberdinetan.

Besteak beste biziraupeneko irteeretan edo birziklatzea landu eta suspertzeko egindako ekintzetan. Ez dituzte inongo arazo larririk izan



Ibarrakoekin batera egin dituzte aurtengo udalekuak. /Y. CUADRADO

aurtengo udalekuetan.

Abuztuaren 5ean irten ziren Azpeititik ongi pasatzeko eta errespetua eta tolerantzia lantzeko.

Antolatzaileek diotenez lortu dute helburua. Zuzendaritzatik esan dute eskertzekoa dela bertan parte hartu duten guztiak sustatu duten tratu ona eta horren emaitza izan dela giro paregabea.

Jendearen beharra

Zaparraye taldea 2003an 112 haur eta 12 begiralekin sortutako aisialdi talde bat da. Beraien egutegian urteroko ekintza ugari dituzte eta helburu solidario bat ere. Huacaycanen (Peru) dagoen eskola batekin elkarlanean dabilta eta azpeitiar taldeak lortzen dituen diru sarrerak Hego Amerikara bi-

daltzen ditu bertako hezkuntza hobetzeko. Azken urteetan geroz eta haur eta begirale gutxiago dituzte.

Hori dela eta, beraien asmoak eta proiektuak aurrera eramateko jendearen beharra dute. Taldeko ki-deek aurrerantzean jende gehiago batzea eta dinamismoa lortzea espero dute. ■